

Hizpideak**Albo bakarreoak**Enekoitz Telleria
etelleria@berria.info

Albo bakarrera begiratu beharraren begiratu beharraz gelditzen da lepoa tente. ETaren agiriari —bolada batetik hona horri ere ez— eta ezker abertzalearen «egintzei» so albo bakarrera begira ari dira asko, eta gelditu zaie lepoa tente. Albo bakarrari («urratsak») eta albo bakarrari («egintzak») eskatzen ari diren horiek, ordea, sei polizia operazio jarri dituzte abian ETAK ekinntza armatuen geldialdia iragarri zuenetik. Guardia Zibila eta Espainiako Polizia

42 euskal herritar atxilotu ditu tarte horretan —atzo azken zortziak, Segiko kide direlakoan—, eta 25etik gora dira torturak salatu dituztenak.

Albo bakarrera begira egindakoak dira eskakizunak, eta albo bakarrarena da biolentziaren monopolioa. Albo bakarrera begira eskatzen delako politika egitea, eta albo bakarrak erabakitzen duelako politika egiten ez uztea. «Hori egiten ari badira, guk aukeratu dugun bideak min ematen dielako da. Horrek esan nahi du asmatzen ari garela», hausnartu du ezker abertzaleak. Albo bakarreoak izatea baita bat, eta albo bakarrera begiratzea bestea.

**Hitz beste**
Anjel Lertxundi**Presioa**

Idazten hasi zenetik izan du amets bera: «Noiz izango ote dut urtebete nire esku? Noiz bizi ahal izango dut ogibidearen kezkarik gabeko, irakurtzea eta idaztea beste egitekorik gabeko denboraldi bat?». Idatzi duen guztia, ordea, ordu libreetan zertu du, bere ogibideak —diru-sarrerak— uzten zion denboran, alegia: orduak lapurtuta oporraldiei, atsedenera eta familari. Adinean aurrera, gero eta hurbilago ikusten zuen erretiroa eta amets egiten zuen: «Erretiroko diru apurrak emango zidak ogibidearen kezkarik gabe idazteko libertatea, huraxe izango diat idatzi nahi dudanari denbora guztia eskaintzeko aukera aparta».

Azkenaldiko erretiroari buruzko alarma-deiek, ordea, abailduta daukate. Autonomoa baita, izututa dago bere ametsak ez ote duen hirurogeita zazpi urte arte itxaron beharko. Egoneak derrigortuta, ukendu bila hasi da: «Ibilian-ibilian, egia izango da presioa dela sorkuntzarako akuilurik onena».

Zaldieroa**De Rerum Natura**

Zaldieroa@zaldieroa.com

**Gazteri berria**

Patxi Juaristin elkarrizketa mamitsua egin dio asteon Bizkaiek. Soziologo markinarren doktore tesia euskaldunon kultur ekarpen unibertsalaren adibide modura ipini izan dut beti. Euskal gizartearen antolakuntza euskararen ikuspegitik aztertzea sinisgarria den metodologia bakarra iruditzen zait. Barandiaranek esaten zuen moduan, gure «ei» eta «ohi»-etan datza hain modernotzat ditugun arazoak milaka urtetako esperientziaren bidez eman diegun erantzuna. Eta Juaristik «gure etxea» eta «gure ama» soziologia-ra ekarri zituen. Ez da derrigorrezko urratsa, baina konplexuz beteriko euskal kulturari ondo datorikio homologazio usaina duen oro. Baita ondorioen inplikazioa onartzen ez duen kasuetan ere.

Etorrizun beltza aurreikusten du Juaristik: «(Bihar-etz) gizarte bidualistagoa, hedonistagoa eta arriksutsuagoa izango dugu». Euskal gizartearen antolakuntza mailaz mitokau hautsi eta Gabirel Ezkurdiaren Alcantaratarren teoriara lerratzen da: hemen beti egon

**Larrepetit**
Fredi Paia

Gazteri berekoi, materialista eta kontserbadorea datorkigu etorkizunaren ingeniari

da ehuneko hamar bat oso konprometitua alde batekin, beste ehuneko hamar bat guztiz konprometitua kontraokarekin eta gainerrako %80a Alcantaratarrak dira. Hau da, Frankismoan frankistak, Felipekin felipistak, Ibarretxekin soberanistak eta Patxi Lopezekin hiritar aspertu. Hala ere, Juaristik gatazka politikoaren inplikazioak sano gainetik igarotzen dituela iruditu izan zait beti. Euskal gaztearen militantzia baxua da ehunekoetan, Europako beste leku batzuekin alderatuta. Elkarrizketa argitaratu den egun berean Segiko beste zortzi gazte atxilotu dituzte. Batzarretan parte-hartu eta kartelak jartzeagatik hamar karta kartzelan igarotzeko arriskua dagoen herri baten bizi garea ahazten zaio. Edo ez du esaten, behintzat.

Gazteri berekoi, materialista eta kontserbadorea datorkigu etorkizunaren ingeniari. Eta zergura genuen ba? Gure balio demokratikoez kartzela, kriminalizazio edo bazterketa sozialarekin ordaintzen badute giza-marrazoarekin kritikoa den altematiba oro?

Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAK** mozteko esku-bidea du. Helbide honetara bidali behar dira. zeri-abizenak eta herna adierazita: Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: irtzia@berria.info.

Txillardegik arrazoi zeukan

Ofiziala da. *New York Times*-ek esan du. Hizkuntza naturalen pentsamendua moldatzen dute. Ez da gauza bera euskaraz edo guugu yimithir-eraz pentsatzea. Hizkuntza bakoitzak bere kategoria kognitiboa ematen dizkizu, eta zuk mundua horien bitartez pentsatzen duzu.

Neure ikerketak ere ondorio berera eramau nau. Baina orain «ortodoxia» dena, duela bizpahiru urte arte herejia izan da. Zientzia kognitiboek eta antropologoek ikerketa lan handia egin behar izan dute hizkuntzak pentsamendua nola moldatzen duen erakusteko.

Pinker eta Fodor jaunak, Pentsamenduaren Hizkuntza Unibersal erabat errepresentatzaile hori ez da existitzen. Sentitzen dugu, oker zeundeten.

Gogamena aztertzea bikain dago, baina utzi programa politikoak albo batera —«odio el relativismo» esan omen du Fodorrek (Pinkerrek aipatzen du eta Azurmendik bere liburuan jasoa)—

Eta etxera etorriaz, bai, Txillardegik, gure Txillardegik maitea, arrazoi zenuen («hizkuntza da herri baten arima»). Norbere bihotzak norbere hizkuntzan egiten duelako taupa. Orain, lerro hauek irakurtzean ere, oroitu ko da hamarkadetan atek itxi dizkiotenez, euskarazko gogoketa defendatzeagatik («esencialista»), «romantico» eta antzeko beste hamaika epiteto botata leku-txo egin duten modernitoez. Oroitu koenez. Baina azkenean *New York Times* egunkariak ere arrazoi eman behar izan dio. Ez da gutxi. Baina... aski da?

Ekai Txapartegi. Zarautz.